

8.FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoei dagokienez, gure enpresak baliabide informatikoak, intelektualak eta baliabide garrantzitsuena, espazioa izango ditu.

Lehenik eta behin, bloke informatikoa dago, eta bertan informatikako arduradunek parte hartuko dute, web guneak, telefono finkoak eta ordenagailuak eramango dituztenak hain zuzen ere. Teknologia hauek, erabilgarriak izango dira web orriaren, haurren edo enpresaren garapena zein den ikusteko.

Espazioaren baliabideari dagokionez, gure ustez garrantzitsua da aliatuak bilatzea, gure ideologia berdina edo antzekoa dutenak, horri esker, eduki objektibo bat sortzen lagunduko digute (eduki hori familiei eskainiko diegu). Hauek izango dira ekonomikoki gure enpresa sortzen lagunduko digutenak. Aliatu hauek, gure enpresaren parte bihurtuko dira azken finean finantzatu egingo gaituztelako.

Finantziarioari esker, enpresa handitu egingo da eta horrela, enpresaren bazkide egingo dira. Honek esan nahi duguna hurrengo hau da; gure enpresa ikastetxeekin harremanetan jarriz gero, ikastetxe horretako haurrak lehentasuna izango dute eskainiko ditugun ekintzetan parte hartzeko.

Hortaz gain, begirale ikastaroak eskaintzen dituzten ikastetxeak edo erakundeak ere bilatuko ditugu. Aurkitzen ditugun erakunde desberdin horien finantzazioaren truke, ikasle horiei praktikak egiteko gune bat eskainiko diegu.

Bestalde, gustatuko litzaiyuke baliabide intelektualen inguruan hitz egitea. Hain zuzen ere etorkizunean hezitzaileak izango garelako eta gure ustez, esan beharra dago hezkuntza prozesua curriculum batean oinarritzen dela.

Curriculum horrek ez du aukerarik ematen haurra erabat askea izateko. Honek haurraren garapenean atzera pausuak sortzen ditu gizarteak markatzen dituen presioen ondorioz.

Honekin batera, emango dugun materiala askea izango da. Honekin esan nahi duguna, haurrari kultura desberdinetan egunerokotasunean erabiltzen diren materialak eskainiko zaizkiola munduaren irudi erreal bat izateko.

Laburbilduz, proiektu hau ez da garrantzitsua bakarrik kultura aniztasuna ezagutzeko, baita ere, familia eta haur desberdinei mundua era erreal batean ezagutzen laguntzea askatasun osoz.